

MUSIKAGINTZAREN NORMALIZATZEA: EUOPARAKO BIDEAK

Patxi J. Larrañaga

Musikagilea. Iruñeako taldearen partaide

Komunikazio honek, oso mugatutako arlo batean ikus ditzaizakegun beharrak argitu eta irtenbideak proposatzeko asmoa besterik ez du, Arloa: Euskal Herriko kreazio musika(gaurregungo musika edo musika berria deritzoguna, alegia) eta horretan jarduten duten musikagileak. Beharrak: barne-antolaketak eta kanpo alderako hedaketak sortzen dituztenak.

EGOERAREN DESKRIPZIOA

Geure borondatez arloa mugatu dugunez, musikagintza-
ren irakaskuntza bezalako gaiak alde batera utzirik, ikus dezagun zehazki zein den musikagintza beraren egoera.

Euskal Herriaren biztanlegoa kontutan harturik, une honetan lanean diharduten belaunaldi ezberdinetako musikagileen kopurua ez da txikia gure inguruko herriei begiratuz.

Horretarako adina dutenen artean ez dira gutxi estatuan eta Europan izena lortu dutenak. Gazteen artean ere, Euskal Herriko mugak gainditzen ari direnek ere talde nabarmena osatzen dute.

Baina ikus al daiteke guzti hau Euskal herri barneko kultura bizitzan? Zer nolako hedapena du gure mugetatik at?

Barne egoera

Bi ekintza besterik ez daude zuzenean gaurregungo musikaz arduraturik, iraunkorra izan eta euskal musikari garrantzia ematen diotenak: Errenteriako Musikasteko Abangoardia eguna eta Donostiako Euskal Musika Berriaren Jardunaldiak. Gainerakoak (Bilbo eta Iruñeako zikloak, Donostiako XX. mendeko musikaren Astea. Gasteizen izandako zenbait kontzertu) noizik behinkakoak dira, euskal musikaz ahanztirik daude edo epe luzeagoko musika aurkezten dute. Hau da: urtean bi aukera besterik ez musika garaikidea Euskal Herrian bertan entzuteko.

Musikaren hedakuntzaren alde lan egin dezaketean erakunde publikoek (Telebista, Irratia, Orkestra) ez dute honi buruzko politika finkorik. Euskal musika berria programazioetan agertzen denean gertakari isolatu bezala izaten da eta ez dio

aurretikako inongo iraunkortasun helbururi erantzuten. Aldian behingoak dira ere beste zenbait erakundek (Abesbatzen Elkarte, Musika Hamabostaldia edo Txistulari Elkarte, adibidez) antolatutako ekintzak. Honekin ez dugu egoeraren errua erakunderen baitan bakarrik ikusi nahi, askotan borondatearik onena azaldu izan bait dute itzuliko gara aurrerago gai honetara.

Kanpo hedaketa

Kanpoan entzun ahal den euskal musika apurra bere egilearen ahaleginek soilik iritsi arazi dute heldutako lekura. Erraz ulertzekoa da beste nazioek antolatuta dituzten hedabideen aldean musikagile bakoitzaren indar eskasa ez dela ia ezertarako aski: musikagile euskaldunok gainerako europarren kompetentziak gain, hauek bere zerbitzurako antolatutako dituzten egitura sendoen kompetentziari ere egin behar diogu aurre.

Eta ez da hori guztia. Gure interesak defendatuko dituen erakunderik ez dugunez. Espainian dagokigunera ioz gero, gure euskal nortasuna estatuaren orokortasunean galtzen da. Horrela, Espainiako mugetatik kanpo, inork ez daki Europa mailan izena duten horiek euskaldunak direnik. Musikagile katalanekin, adibidez, ez litzateke inoiz horrelakorik gertatuko.

EGOERAREN KRITIKA

Hau da, bada, —ez bertan, ez kanpoan— ia inon entzuten ez den musikaren egoera.

Askorik eskeini ezin dugulako gertatzen al da hori? Ez du gu uste, gure lanak —bai kalitatearen eta bai kopuruaren aldetik ere— egokiak bait dira. Baina emaitza nahi bezain egokiak lortzeko gure indar eta ahalmenen pareko antolaketak beharrezkoak ditugu. Antolaketa horrek bi alderditakoa behar du izan: batetik, musikagileen arteko barne-antoiaketan ekin behar zaio; bestetik, emaitzak erakusteko aukera emango duen egitura iraunkorra eraiki beharra dago.

EGOERAREN GAINDITZEA

Bi proposamen egingo ditugu, gure ustez gainditze horri ekiteko baliagarriak izan daitezkeenak.

Euskal Musikagileen Elkartearen sortzea

Aurrerago ere esan dugu erakundeak ez direla kasu askotan barne-egoeraren errudun. Une honetan, eta musikagileei dagokienez, ez dago administrazioarekin, irrati-telebistarekin, orkestrarekin eta beste hainbat erakunderekin hitzegiteko gai izango den ordezkorik.

Asko dira bizi dugun egoera desegokian eragina izanik, honelako elkarte batek behin betirako konpontzeko bidean jar ditzaken gaiak. Batzuk besterik ez aipatzeagatik, ondorengoak:

- Irrati telebista publikoan sartu beharreko bertako musikaren portzentaia.
- Euskadiko Orkestraren programazioa.
- Musikagintza lehiaketen araudia eta epai-mahaien osaketa (Arkitektoek egiten dutenaren antzera).
- Administrazioak era guztietako musika erakundeei (abesbatzak, musikariak, etab.) laguntzerakoan eskatu beharreko «ordain kulturalak». Adibidez, bere egitarauetan bizirik dauden musikagile euskaldunen lanetatik hainbesteko bat sartzearen beharra.
- Euskal Herrian egiten diren festibalen programazioa. Horrelako ekintzetan opera, musika sinfonikoa, ganbara eta abesbatzak izaten dira. Ba da garaia euskal musikak zenbaterainoko presentzia izan behar duen behin betirako finkatzeko.
- Kontserbatorioek eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako ekintzen norabidea.

Musikagileek ba dute gaurregungo musikarekin zerikusia duen guztiari buruzko iritzia emateko eskubidea. Eta elkarte batean biltzea da eskubide hori aurrera ateratzeko modu bakarra.

Kanpo-hedapen arloan, elkarte honek beste nazioetakoekin harremanak finkatuko lituzke. Hau hurrengo puntuan argituko dugu.

Euskal Herriko Gaurko Musikaren Nazioarteko Jardunaldiak sortzea.

Gure herria, bertako musikaz jaialdi bat eta kanpokoaz bigarrena antolatzeko behar bezain handia ez denez, ekintza berberak bete behar lituzke bi eginbeharrok.

Neurri apalean, azken bost urtetan Donostiako Euskal Musika Berriaren Jardunaldiak saiatu dira hori egiten baina, emaitza nabarmenak ikusi ahal izateko, orain arte egindakoa baina askoz ere inportantzia handiagoko zerbait ekin beharra dago.

Musikagileen umekeria besterik ez ote da izango Nazioarteko Jardunaldien irrikia? Inolaz ere ez. Horixe bakarra da, hain zuzen, gure musika kanpoan ezagutzera emateko bidea. Batetik, musika garaikidearen munduan horrelako festibalik ez duen herria ez delako ezer; bere esistentzia bera ez da ezagutzen. Bestetik, Europa osoan ohizkoa den jokaera —geroz eta gehiago— musikagile elkarten arteko elkartrukea delako. Europako zirkuitoetan sartu nahiz gero, Jardunaldiak behar-beharrezko tresna dira.

Proposatutako bi erakundeen arteko elkar-lan organikoak bakarrik ekar dezake Euskal Musikagintzaren normalizatzea, barne-egoerari eta munduan lor nahiko genukeen presentziari dagokionez.